**OSASUN SAILA**
***(Osakidetza)***

LEHIAKETA PUBLIKOA, «Portugalete-Enkarterrietako Eskualderako (Bizkaia) lanabesak eta erremintak» kontratazeko dena. 7759

**LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA**

ERABAKIA, 1997ko martxoaren 14koa, Etxebizitza eta Arkitektura zuzendariarena, «Mina del Morroko 1 poligonoan 5 blokeko 42 etxebizitza eraikitzeko aurreproiektu, oinarrizko proiektu eta burutze proiektua idazteko lanak» esleitzen dituena. 7760

## Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

**HERRIZAINGO SAILA**

IRAGARPENA, Gorka Kortazar Viñe jaunari, interesatuak eskatutako testiguaren froga onartzen duen Segurtasun Sailburuordearen Kabinetearen zuzendariarak 1997ko otsailaren 7an emandako Probidentzia jakinarazteko dena. 7761

IRAGARPENA, Miren Agurtzane Urizar Embeitia andereari Herritarren Segurtasunerako zuzendariaren 1997ko otsailaren 21eko Erabakia jakinarazteko dena. 7763

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**
***(Servicio vasco de salud)***

CONCURSO PÚBLICO para la «Adquisición de útiles y herramientas, con destino a la Comarca Portugalete-Enkarterri (Bizkaia)». 7759

**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE**

RESOLUCIÓN de 14 de marzo de 1997, del Director de Vivienda y Arquitectura, por la que se adjudican los trabajos consistentes en la «Redacción Anteproyecto, Proyecto Básico y de Ejecución de 42 viviendas en el Polígono 1, Bloque 5 de la Mina del Morro». 7760

## Otros Anuncios Oficiales

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

ANUNCIO por el que se notifica a D. Gorka Kortazar Viñe la Providencia de 7 de febrero de 1997, del Director del Gabinete del Viceconsejero de Seguridad, por la que se accede a la práctica de prueba solicitada por el interesado. 7761

ANUNCIO por el que se notifica a D.ª Miren Agurtzane Urizar Embeitia la Resolución de 21 de febrero de 1997, del Director de Seguridad Ciudadana. 7763

# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### Zk-2340

100/1997 DEKRETUA, maiatzaren 6koa, EAEko herri-zorra, hogei mila milioi (20.000.000.000) pezetakoa, barnekoa, amortizagarria eta bonotan eratua alegia, jaulkitzeari buruzko Dekretua aldatzen duena.

EAEko herri-zorra, hogei mila milioi (20.000.000.000) pezetakoa, barnekoa, amortizagarria eta bonotan eratua alegia, jaulkitzeari buruzko martxoaren 25eko 64/1997 Dekretuko 2.1 atalean ezartzen denez, eragiketa horretako jaulkipen eguna 1997ko apirilaren 10etik hilabete berorretako 30era artekoa da.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### N°-2340

DECRETO 100/1997, de 6 de mayo, por el que se modifica el Decreto por el que se acuerda la emisión de Deuda Pública de Euskadi, interior y amortizable, formalizada en bonos, por importe de veinte mil millones (20.000.000.000) de pesetas.

El artículo 2.1 del Decreto 64/1997, de 25 de marzo, por el que se acuerda la emisión de Deuda Pública de Euskadi, interior y amortizable, formalizada en bonos, por importe de veinte mil millones de pesetas establece que la fecha de emisión de dicha operación debe estar comprendida entre el 10 y el 30 de abril del presente año.

Izapideak egiterakoan ezustekoak agertu dira eta horiek bideratzea nahitaezkoa da jaulkipena behar bezala gauzatzeko. Beraz, ezinezkoa denez jaulkipena dekretuan adierazitako epean gauzatzea, beharrezkoa da epe hori luzatzea.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Juarlaritzaren Kontseiluak 1997ko maiatzaren 6an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Jaulkipena egiteko epea.

Hogei mila milioi (20.000.000.000) pezetako EAEko herri-zorra jaulkitzea erabakitzen duen 64/1997 Dekretuko 2.1 atalean ezartzen den jaulkipen-eguna, 1997ko maiatzaren 7tik ekainaren 30era bitartekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko maiatzaren 6an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La aparición de diversos problemas de tramitación de carácter imprevisible pero cuya resolución es absolutamente necesaria para el buen fin de la Emisión impiden realizar la misma en el plazo inicialmente previsto en dicho Decreto siendo necesaria la ampliación del plazo definido en el mismo.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 6 de mayo de 1997.

DISPONGO:

*Artículo Único.*– Plazo de realización de la emisión.

La fecha de emisión establecida en el artículo 2.1 del Decreto 64/1997, por el que se acuerda la emisión de Deuda Publica de Euskadi por importe de veinte mil millones de pesetas, estará comprendida entre el 7 de mayo y el 30 de junio del presente año.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 6 de mayo de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-2341

96/1997 DEKRETUA, apirilaren 29koa, Teknologiaren Euskal Sarea sortu eta arautzen duena. Horretarako, Euskadiko Teknologi Ikerketarako Erakundeekiko elkarlana eta koordinazioa finkatu eta erakunde horien ezaugarriak eta eginkizunak zehaztu dira.

Euskal Autonomi Elkarteko industria-politikan aurrera eraman beharreko Jarduera Esparru Orokorraren barruan, teknologia-politika dago zehaztuta, eta politika horren ardatz nagusietako bat Euskal Autonomi Elkarteko azpiegitura fisiko eta inteligenteak bultzatzea da; bereziki teknologiako azpiegiturak bultzatu nahi ditu.

Beraz, politika horren helburua azpiegitura teknologiko inteligentea garatzea da, sarean modu osagarrian lan egiteko. Merkatuaren ikuspuntua eta bezeroarengandik gertu egotea izango ditu kontuan, eta eskaintza teknologikoak, berriz, integrala eta sofistikatua izan eta Euskadiko enpresen sarera egokituta egon beharko du.

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA Y DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-2341

DECRETO 96/1997, de 29 de abril, por el que se constituye y se regula la Red Vasca de Tecnología mediante el establecimiento de relaciones de colaboración y coordinación con las Entidades de Investigación Tecnológica de Euskadi y la determinación de las características y funciones de las mismas.

Dentro del Marco General de Actuación de la Política Industrial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se encuentra definida la Política Tecnológica, que tiene como uno de sus ejes fundamentales potenciar las infraestructuras físicas e inteligentes en el ámbito de la Comunidad y, en concreto, la infraestructura tecnológica.

El objetivo de dicha Política es, por tanto, desarrollar una infraestructura tecnológica inteligente, que trabaje en red de forma complementaria, coordinada desde la perspectiva del mercado y de la proximidad al cliente, y que sea capaz de ofrecer una oferta tecnológica integral, sofisticada y especializada al tejido empresarial vasco.